

5 ostirala

09:30etan.- Haurrentzako euskarazko zinea: "Ikasgela hegalaria".
Usurbe Antzokian.

10 asteazkena

17:30etan.- "Hitzen lapurra" Bertsoxongiloak.
Udal Batzar Aretoa.

11 osteguna

21:00etan.- Zine-kluba: "Sophie Sholl".
Usurbe Antzokian.
Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

12tik 14ra

LIBURU AZOKA
Gernika pasealekuan.

11n. "Bizitza homeopatikoa" liburua in-
guruko topaketa Liburu egilearekin, Xabier
Mendigurrenarekin. Udal Biblioteka,
19:00etan.

12an. Isabel Millet ipuin kontalaria, Gernika
pasealekuko karpan, 17:30etan.

13an. Tere Irastortzen "Izendaezinaz" libu-
ruaren aurkezpena, Gernika pasealekuko
karpan, 18:00etan.

14an. Migel Angel Mintegiren "Berriz ere
hutsetik hasiera" liburua aurkezpena,
Gernika pasealekuko karpan, 11:30etan.

13 larunbata

17:00etan.- Haur antzerkia: "Alegiazko liburua", La Bal-
dula taldearen eskutik.
Usurbe Antzokian.

14 igandea

08:00etan.- Mendi irteera: Beasain-Arriaran-Beasain.
Aizkorri Mendizale Elkartearekin.

18 osteguna

21:00etan.- Zine-kluba: "Honeydriller".
Usurbe Antzokian.
Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

19 ostirala

22:15etan.- Ostadar dantza taldearen gabonetako
emanaldia.
Usurbe Antzokian.

20 larunbata

19:00etan.- "Goierriko artisten VII. Topaketa" erakus-
ketaren hasiera.
Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoa.

24 igandea

08:00etan.- Mendi irteera: Aitzgorri.
Aizkorri Mendizale Elkartearekin.



12:00etan.- Olentzero. Ikastetxeetako ikasleen bilkura
herriko kaleetan zehar abestu ondoren.
Loinazko San Martin plazan.

25 osteguna

12:00etan.- Udal txistulari Bandaren kalejira.
Herriko kaleetan zehar.

26tik 30era

GABONETAKO HAUR PARKEA

Ordutegia 11:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:30.
Osteguna 26, 18:00etan: Globoflexia.
Larunbata 28, 18:00etan: Txotxongilo ikuskizuna.
Astelehena 30, 18:00etan: Txokolate jana.
Antzizar Kiroldegian.

28 igandea

19:00etan.- Loinatz Abesbatzaren eta Barroko taldearen
kontzertua.
Andre Mari Zerutuaren Parrokian.

29 astelehena

21:00etan.- Zine-kluba. "Gau laburra VIII".
Usurbe Antzokian.
Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

30 ostirala

21:00etan.- Zine-kluba. "Gau laburra VIII".
Usurbe Antzokian.
Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

31 larunbata

08:00etan.- Mendi irteera: Txindokira.
Aizkorri Mendizale Elkartearekin.

12:00etan.- San Silbestre Krossa.
Antolatzailea: Beti Bizi.

EGUBERRI EGUNEKO KONTZERTU BEREZIA

EGUBERRIAK MUSIKARIK GABE?

Ez dago arriskurik, Musika Eskolako taldeak giro-
tan ari baitira.

Zuek ere Eguberri musika gustukoa baldin baduzue gertu-
ratu zaitezte abenduaren 18an eskainiko den EMANALDI
BEREZIRA.

Banda, Akordeoi Orkestra, Harizko Orkestra, Abesbatzak
eta Musika Lengoaiako 3. mailako ikasleak izango dira lan
horretan.

Amaiera emango diogu, bertara bildutako guztiok "Hator-
hator" eta "Haur eder baten bila" abestuz.

Etorri gurekin!

2008ko abenduaren 18an, 20:00etan.
Beasaingo Andre Mari Zerutuaren Parrokian.

Paper birziklatuan egina 3447-008



Boluntarioak

Nire denbora, zuretzat

6 LITERATURA
Nobedadez beteta dator
XIX. Liburu eta Disko Azoka

9 GABONAK
Egitarau zabala antolatu
da haurrentzat

10 SANTA LUZIA EGUNA
Jostunak prest euren
zaindariaren eguna ospatzeko



Beasain iruditzen...

2008

Natura etengabe birsortzen ari da. Ziklo bat amaitu orduko, beste bati ekiten dio kolore ezberdinak hartuz. Atzean, lekuko gisa, Txindoki mendiaren gailurra. Aurki zuri-zuri eginda ikusiko dugu. Negua ate-joka hasi da. Goxo-goxo, eguzki printzen konpainian batzuetan, takar, bortizki, beste batzuetan. Gure antzera, alegia.



Udazkena azken ostikadak ematen ari da, neguari ongi-etorria eman aurretik. Bitartean, beheko irudietan ikus daitezkeen bezalako hamaika aurpegi erakutsi dizkigu. A zer nolako oparia naturak eskaintzen diguna, begiratzen jakinez gero!

Alkatearen txokoa...

Patxi Plazaola



GABONAK GAINEAN DITUGU

Gainean ditugu gabon-jaiak. Ez dira, ordea, guztiontzat adiera bereko; poza eta tristura, bakardadea eta jendartea, festa eta ezina nahasian datoz ate joka etxez etxe. Egun hauetan falta diren haiek ditugu batez ere go-goan. Ator Ator etxera abestiak deitzen dituen haiek guztiak, gaixo, preso, urrutian ditugun senitarteak... Badira, alta, bi hitz majiko gabonetan buru: zorion-opa eta opariak. Nork bere zorion ametsa du. Gabonetan, Jesus jaio berria edo Olen-

tzero dira zorion emaile. Opariak haurren eta jada haur ez garen askoren ilusio. Badu honek beste aurpegiak, baina: kontsumismoaren zurrumbilo amaiezina, neurririk gabea. Horregatik dira hain eskertzeko eta pozgarri aldizkariaren ale honetan aurkeztu zaizkigun zorion eta opari emaileak. Gazte talde bat bere denbora besteen zerbitzura emanez. Eta horixe da benetan gabonetako sakon-sakoneko mezua: duguna konpartitzea. Izan gaituzen inguruko Olentzero.

Zorionak!

Se acerca la Navidad, tiempo de encuentro familiar, recuerdo de los ausentes (enfermos, presos...). Dos son las palabras mágicas que rodean estas fiestas: Felicidad y regalos. En este número de la revista se nos presentan dos grupos de jóvenes que regalan parte de su tiempo para ofrecer felicidad a otros y a cambio reciben como ellos reconocen felicidad y aire fresco en sus vidas. Más allá del consumismo que nos invade captemos el mensaje navideño que nos invita a compartir lo que tenemos. Zorionak!

Zer iruditzen zaizu, Gabonetan argi gutxiago jartzea?

Udalak aurtengo Gabonetan apaingarri gutxiago jarriko ditu kaleetan, argi kontsumoa murrizteko. Aurreko urteetan hormatik horma zintzilikaturiko 65 apaingarri jartzen bazituzten, aurtun 8 jarriko dira Kale Nagusia eta Jose Miguel Iturrioz kalean, eta beste bi herriko sarreretan. Gainera, 1.500 watio/ord. kontsumitzen zituzten apaingarriak hautatzetik 400 watio/ord. kontsumitzen dituztenetara jo dute.



Zuberoa Jauregi
Laia Ingurugiro Zerbitzuak

"Niri oso ondo iruditzen zait argi gutxiago, eta gutxiago kontsumitzen dutenak jartzea baina nik neuk ez nuke bat bera ere ipiniko. Uste dut azken urteetan gehiegikeriak egin direla eta horrek ez duela inolako ekarpenik egiten. Ez diot zentzurik topatzen. Gustatu ala ez, kontua da ea horrelako gastu energetiko bat asumitu behar dugun edo ez. Gainera, ez dut uste loturarik duenik salmentekin. Ez zait iruditzen zenbat eta argi gehiago ipini, are eta gehiago salduko dutenik dendariak. Uste dut lehen ez zela argirik ipintzen, nahikoa moda berria da. Gure aiton-amonen garaian ez zegoen horrelakorik eta guk bezala edo hobeto pasako zituzten Gabonak". ■



Iñaki Ibañez
Bareak Merkatari Elkarte

"Como comerciantes estamos muy concienciados con el tema ecológico y en ese sentido, nos parece bien la iniciativa que ha optado el Ayuntamiento. Utilizando bombillas correctas, y hoy en día hay tecnología para ello, no tiene por qué influir en la calidad de las calles. El problema puede venir a la hora de la ubicación de esas luces. Ahí sí pueden meter la pata. El Ayuntamiento no ha pedido la colaboración del comercio. Por un lado, tenemos la suerte de que no ha pedido aportación económica a los comerciantes para la campaña de Navidad, como sí se ha hecho en otros municipios, pero por otro lado, sí podría contar con nuestra opinión a la hora de decidir dónde ubicar los adornos. La verdad es que lo poco o lo mucho que haya hecho, lo ha hecho siempre sin pedirnos nada a cambio". ■



Maialen Cano
Agenda 21eko Foroko kidea

"Iaz Agenda 21eko Foroan kontsumoa aztertu genuen eta argi gehiegi jartzen zela ondorioztatu genuen. Kontsumoa handia zela. Hori Gabonak aurretik izan zen, baina gero ikusi genuen indar txikiak jarri zituztela. Gainera, toki batzuetan asko eta beste batzuetan, berriz, oso gutxi. Oreak bilatu beharko litzateke. Bestela, kale estuetan ez da apaingarririk ikusten eta herrigunean, berriz, asko. Uste dut garrantzitsua dela tokiak ondo aukeratzea. Orain, aurtun kontsumo energetikoan badago alde". ■



Jon Aranburu
Dendaria

"Zer esango dizut ba? Tontakeria iruditzen zait alde batetik. Energia aurrezteko ondo dago baina ikusi egin beharko da instalazioa zenbat kostatzen den ere. Udaleko langileek egiten badute, tira, baina urte batzuetan ikusi izan dut kanpoko enpresaren bat argiak jartzen. Udalak badaramatza bizpahiru urte kontsumo gutxiagoko argiak jartzen. Noski, ez dira hainbeste ikusten. Ondo dago erabaki dutena, baina zertan gastatuko dute argietan aurreztutakoa? Badut konturik lagun bat sekulako fijasioa duena argietan". ■

Beasaindar guztien esku dago

Editorea:
Beasaingo Udala

Lege Gordailua:
SS-1284-2008

Beasaindik kanpo bizi direnek aldizkaria jasotzeko:



943 02 80 50



@ udala@beasain.net

www.beasain.net

OHARRA

[Beasain]
egunez egunNagore Sanchez, Amaia Garmendia,
Ainhoa Jimenez, Celine Artazcoz,
Laura Morejón eta Maite Blain.

Larunbatetako kafea

Larunbatetako kafeak gorputzaldi ona uzten die. Konpainiagatik da. Astero, hiru orduz, adimen urritasuna duten pertsonekin egoten dira. Txolarte, Atzegiren aisialdi taldeko boluntarioak dira.

Lieváis años dedicando vuestro tiempo a personas para quienes su tiempo de ocio se limita a tres horas del sábado.

Celine: Para mí es una necesidad. Hace dos semanas no nos juntamos y dices ¡buff!

Ainhoa: A mí no me exige un gran esfuerzo y son ellos quienes nos aportan cosas a nosotras.

Amaia: Es cierto. Son ellos, los usuarios, quienes nos devuelven cada sábado las ganas de volver. Venimos por ellos.

Nagore: Yo estaba estudiando Educación Especial, necesitaban a gente y por eso empecé. Pero te enganchas. Salimos a tomar un café o a patear y ahora estamos inmersos en la preparación de la función que presentarán en diciembre en la sala de cine del Colegio La Salle. Les hace mucha ilusión.

Celine: La gente cree que no vale para esto pero la cuestión es probar.

Ainhoa: Eso es por falta de ganas. Y todavía hay miedo.

Parece que no corren buenos tiempos para el voluntariado, aunque viéndolos a vosotros cualquiera lo dira...

Celine: Hace cuatro años estábamos muchas-hasta ahora todas hemos sido chicas y ahora hay un chico-aunque luego hubo un bajón, pero más o menos nos seguimos manteniendo. Ahora somos 12 monitores y 16 usuarios.

Nagore: Dentro de unos años será un problema. La gente quiere para los fines de semana otro tipo de trabajos que le den un poco de pasta.

Presentación de la FUNCIÓN DE NAVIDAD. Día 20 de diciembre, a las 18.00h.
En la sala de cine del Colegio Lasalle.



Gabonetako oparietan pentsatzen hasita gauden honetan, bada gure inguruan hausnarketara eramaten gaituen jendea gizartearekiko duten jokaeragatik. Askok dira euren denbora besteei oparitzea erabaki dutenak. Zerk eramaten ditu

No todas estáis o habéis estudiado Educación Especial y sin embargo aquí estáis. ¿Cómo recordáis el primer día de encuentro?

Amaia: Yo tenía experiencia con gente discapacitada pero la primera sensación sí fue de echarme para atrás porque impacta. Pero el ambiente es tan bueno y lo pasamos tan bien que deseas volver.

Laura: Yo había estado en la ONCE pero es diferente. Sí me impresionó.

Ainhoa: Yo no lo sentí así. Me dijeron que lo tomara con tranquilidad el primer día pero en seguida se me acercaron y todo fue muy bien. Yo siempre había querido trabajar con esa gente.

¿Os resultó difícil tomar la decisión de formar parte de Txolarte?

Nagore: Sí. Por una razón. Al estar cursando estudios de Educación Especial tenía miedo de venir y descubrir que esto no era lo mío.

Supongo que las familias os estarán muy agradecidas.

Amaia: Sí, y también eso te llena.

¿Creéis que el trabajo del voluntariado ha cambiado vuestra visión y que ahora es más humana?

Ainhoa: Creo que inconscientemente, sí.

Celine: Después de estar en Txolarte, salimos más contentas.

Amaia: Ves que también ellos tienen derecho a disfrutar del ocio. Forman un grupo de amigos que va a los Udalekus, sale a cantar el 24 de diciembre...

Nagore: Todos los veranos vamos quince días a los Udalekus. Supone darles un respiro a las familias porque nosotras estamos con ellos tres horas, pero estar 24 horas pendientes de una persona que necesita ayuda constantemente es duro.

Amaia: Para muchos el único punto de diversión es éste. Entre semana van a Centros de Día, al taller o están en casa. Txolarte les permite también relacionarse entre sí porque por suerte o por desgracia nosotros podemos elegir con quién estar y con quién no. Ellos no. Aprenden a convivir con otra gente.

Ainhoa: Y se dejan querer. Siempre se dice que son personas muy cariñosas y creo que es un mito. Hay quien es muy cariñoso y hay quien no lo es tanto. Pero lo que les das, te lo devuelven en forma de amor. También es nuestra forma de acercarnos a ellos.

Amaia: Muchos son conscientes de que estás ahí para que él pueda salir y te lo agradecen mucho.

¿Se ha hecho mucho en el tema de la integración social de estas personas?

Amaia: Se ha hecho mucho pero queda mucho que hacer todavía.

Ainhoa: En nuestro grupo, la media de edad de los usuarios es de unos 45 años. Antes se les marginaba y se les encerraba. Se nota mucho la educación que han recibido.

De cara a Navidad, tenéis un montón de actividades como salir a cantar o comer el roscón de Reyes después de abrir los regalos. Pero, antes tenéis un acto muy especial. ¿No es así?

Ainhoa: Estamos ensayando la función de Navidad en un local que nos ha dejado el Ayuntamiento, porque el que tenemos se nos ha quedado pequeño.

Celine: Cada año les exigimos más porque queremos que todo salga muy bonito.

Laura: Hace dos años creamos una canción sobre Txolarte y mucha gente del público no pudo evitar las lágrimas.

Nagore: Suelen estar nerviosísimos pero es importante que la gente vea lo que pueden hacer, que pueden ser parte de algo.

Tel. 943 88 72 69
Larunbatetan 16:00etatik 19:00etara

horretara? Txolarte eta Gurutze Gorriko boluntarioek erantzun digute: “Besteei laguntzeak norberari ematen dion bizipozak”. Horretan guztiak bat datoz.

Lo tienen claro. Lo hacen por una sonrisa. Los fines de semana hacen guardias de 12 horas de tres en tres. Viernes, sábados y domingos. Podrían estar pateando con su cuadrila. Pero el saber que ayudan a otras personas que han corrido peor suerte les hace estar en el sitio y en el momento oportunos. Cualquiera puede estar en sus manos el día menos esperado. Les necesitamos.

Zenbat boluntario zaudete?

Mikel: 160 bat lagun daude izena emanda baina aktiboki lan egiten dugunak 50 bat izango gara. Zerbait larria gertatuko balitz, haiei deituko litzaieke. Egia esan, ez daukagu jende aldetik kexatzeko arrazoirik.

Joseba: Hala ere, lehen 112ko larrialdi deiei erantzuten genienan, jende gehiago ginen. Jendeari gustatu egiten zaio anbulantzia. Gaur egun, Jose Marik lortu du aukera hori berriro izatea.



Tel. 943 16 21 50
beasain@cruzroja.es

[Beasain]
egunez egunGoian, Jose Mari Bastarrika, Mikel Rodriguez,
Joseba Gorostiza eta Alex Gerra.
Behean, erdian, Naroa Abalabide eta Iñigo Arruabarrena
euren lagun batekin.

Anbulantziako lezioak

Jose Mari: Duela urte batzuk utzi egin genion zerbitzu hori eskaintzeari, profesionalizatu egin zelako. Baina 112 zerbitzuak anbulantzia bakarra dauka Goierrri osorako eta gure lana izango da haiek etorri artean, beharrean dauden pertsona horiei laguntzea. Oraitxe heldu diogu lan horri eta asteburuetan 12 orduko guardiak egingo ditugu hirunaka, ostiral, larunbat eta igande gauetan.

Hori gogorra izango da, gero.

Mikel: Ni Arrasatera joan izan naiz lan hori egitera eta bai, gogorra izaten da. Baina askotan pentsatzen duzu zu hor ez bazeunde, hantxe gera daitekeela pertsona hori.

Naroa: Nik neuk pentsatzen dut ez nagoela prestatuta.

Mikel: Ez daramazulako hainbeste denbora Naroa, baina bakarrik ez zara egongo.

Zerk bultzatzen zaituzte boluntario lanera?

Jose Mari: Pozak eta disgustuak jasotzen dira. Ni neu hasi nintzen zeren sasoi batean nire familian Gurutze Gorriaren beharra izan genuen eta ez zigun inoiz hutsik egin. Gero, laguntza eskatu zidaten, hasi nintzen eta 16 urte daramatzat.

Iñigo: Satisfazio pertsonala ematen du jakiteak jendeari lagun diezaioketula eta gainera, ondo pasatzen dugu.

Alex: Batzuei futbola gustatzen zaie eta guri, berriz, hauxe.

Joseba: Jendeari lagunduta oso ondo sentitzen zara. Eskerrik asko batek pilo bat betetzen du. Gainera, zeure burua hobeto ezagutzen laguntzen du eta ardura bat hartzen duzu.

Iñigo: Heldutu egiten zara zeren ohitu gabe zauden gauzak ikusten dituzu. Esperientzia bezala ondo etortzen da.

Joseba: Askotan, gure lana askotan prebentiboa da, eta jendeak ez du ulertzen zer egiten duzun euripean, futbol partidu batean, adibidez.

Jose Mari: Gaizki aurkitu duzun pertsona bat denbora batera kalean topatu eta kasu egiten dizula ikustea polita da.

Esker onekoa al da jendea?

Iñigo: Bai. Nik hondartzan lan egin dut eta uretatik atera dudana jendea etorri izan zait eskertzera pasta batzuk hartuta. Esker onekoa da.

Jose Mari: Adibidez, pertsona helduak kanposantura igotzeko garraio zerbitzua jarri dugu aurten eta sekulako arrakasta izan du. Askok eskertu digute.

Markatuta utzi zaituzten esperientziarik bizi izan duzue?

Naroa: Mirandara joan ginen batean, nire adineko mutil bat oso gaizki aurkitu genuen. Edanda eta drogatuta. Niri sekulako inpaktua egin zidan.

Mikel: Asko daude markatzen zaituztenak. Onak eta txarrak. Ni Algecirasera joan izan naiz Itsasarteko Igaroketa Operaziora eta ikusten duzu hango jendeak nola egiten duen lan eta izugarria da.

Gurutze Gorrian lan egiteak humanoagoak egin zaituzte?

Denak batera: Bai.

Jendeak ez duela Gurutze Gorria ezagutzen. Azaldu zer egiten duzun.

Jose Mari: Larrialdietako deiei erantzuteaz gain, ekintza gehienak prebentiboak dira. Egokitutako garraio zerbitzua dugu, lehen arreta bulegoa, etorkin eta gazteentzat programak, nazioarteko lankidetzak proiektuak, formakuntza ikastaroak eta orain lan tailer bat ere abiatu dugu. Mendian galtzen direnentzat bilaketa eta salbamentu zerbitzu bat ere martxan jartzen ari gara.

[Beasain]
egunez egun

La XIX Feria del libro y disco viene cargada de **NOVEDADES**



“Martxotik aurrera kontzertuak ematen hasiko gara”

Txikitan musika talde batean jotzearekin amesten zuten. Garazik izena ere amestu zuten: Sugan. Geroago, Musika Eskolaren bueltan ezagutu zuten elkar. Euskal Kantu Txapelketara aurkeztu eta bigarren gertzeak, maketa bat grabatzera eramane zuten. Handik denbora batera, telefono dei bat jaso zuten. Elkar disketxeakoak ziren. Ametsa betetzat eman zuten orduan. Hala atera zuten lehenengo diskoa. Bigarrena, berriz, “Malko gorria” labetik atera berri-berria da.



Elixabet Bujanda, Maria Amolategi, Garazi Zabaleta eta Jon Eskisabel.

SUGAN

Konparazioak gorrotagarriak izan daitezke baina zer aldatu da bigarren disko honetan?

Maria: Lehenengo diskoarekin konparatuta, aldaketa nabarmena da. Bigarren honetan identifikatuagoak sentitzen gara. Heldutasun bat ikusten da abestietan, letretan...

Garazi: Ez genuen pentsatzen lehenengoak izan duen arrakasta izango zuenik eta nahiko bat-batean harrapatu gintuen. Oraingo honetan, konpromiso bat dugula sentitu dugu. Gainera, Victor arduratu da ekoizpenaz eta horrek ere erraztasuna eman digu.

“Malko gorria” izenburupean aurkeztu duzue. Pistaren bat eman dezakezue letren inguruan?

Garazi: Malko hitzak malenkonia iradokitzen du eta gorriak, berriz, amorrua, indarra. Nahasketa hori transmititu nahi genuen.

Jon: Kontrapuntu bat ere bada. Desberdinak dira baina baita osagarriak ere.

Letren egilea zu zaitugu Garazi. Zer esan nahi izan diguzu?

Garazi: Gizartearen kezak, hausnarketak, eguneroko bizitzan gertatzen dena... baina zer esaten den baino garrantzitsuagoa da nola esaten den. Gauza bat esateko modu asko daude. Musika bera aldarrikapen bat da baina letra bidez era ikus-entzuleengana heltzea lortuz gero, betegarriagoa da.

Abenduan diskoa aurkezteko kontzertu bat egitekotan zarete eta handik aurrera, zer?

Maria: Martxotik aurrera buru-belarri zuzeneko kontzertuekin hasteko asmoa dugu.

Dagoeneko taula gainean ordu asko eman duzue...

Jon: Moldatzen joan gara, bai.

Garazi: Etxekotu egiten duzu eszenatokia. Gainera, gehien zuzenekoetan gozatzen dugu zeren orduan murrizten dira distantziak benetan.


Zeintzuk dira betirako gogoan geratu zaizkizuen kontzertuak?

Jon: 2006ko Kilometroetakoa ona izan zen. Agian izan zen lehenengo aldia ikusten genuela jendea gure abestiak abesten eta 2007an Gasteizen emandakoa ere bai. Iparraldetik ere asko deitzen digute.

Garazi: Hango giroa ezberdina da, baina oso publiko beroa da.

“Malko gorria” diskoa aurkeztuko dute Liburu Azokan

Sugan Taldeak disko berria aurkeztuko du Liburu Azokako karpian hilaren 13an, larunbatean, arratsaldeko 19:00etan. Taldeko kideak diskoak sinatzen egongo dira nahi duen oro hurbil dadin.



El Ayuntamiento, AEK y la librería Mirentxu, con ayuda de más entidades, han vuelto a aunar sus fuerzas para hacer de Beasain la capital del libro y del disco en euskara durante tres días. Y viene cargada de novedades tanto para el público adulto como para el infantil. Las

firman, entre otros, Jon Arretxe, Xabier Montoia, Joseba Sarrionandia, o Miren Agur Meabe. Tampoco podían faltar Pirritx y Porrotx, que han andado entre fogones, y nos vienen con un recetario de cocina para los pequeños de la casa. La Feria abrirá sus puertas el día 12 en el frontón de Gernikako pasealekua. La gente que anda justa de tiempo puede tener




pensado de antemano a qué echar mano. Y es que como en años anteriores, se buzoneará en todos los hogares un catálogo de productos en euskera, lo cual facilita el trabajo a la hora de escoger, por ejemplo, un libro para regalar en Navidades. Además, tanto los libros como los CDs tendrán un descuento del 10%, lo cual es de agradecer.

En opinión de Izaskun y Maite Izagirre, de la librería Mirentxu, la Feria es un evento que la gente espera con ilusión. “La gente aprovecha, sobre todo, para comprar un libro o un juguete para los niños. Es además una ocasión para conocer los nuevos productos que se publican en euskera”.



Mirentxu liburu-dendako Maite eta Izaskun Izagirre.



Liburuak eta Musika

LIBURUAK HELDUENTZAT

- “Fatum”. Jon Arretxe.
- “Bestea da mundua”. Joan Mari Irigoien.
- “Golgota”. Xabier Montoia. Elkar.
- “Zer da maitasuna?”. Miren Agur Meabe.
- “Abertzaleak eta euskara”. Jose Manuel Odriozola.
- “Ispiluaren kalteak”. Edorta Jimenez.
- “La lutte finale”. Joxean Agirre.
- “Afrika express”. Urtzi Urrutikoetxea.
- “Gau ilunekoak”. Joseba Sarrionandia.
- “Otalorea”. Toti Martinez de Lezea.

LIBURUAK HAURRENTZAT

- “Pirritx eta Porrotx sukaldean”.
- “Munduko zazpi herrialdetako ipuinak”. Joseba Sarrionandia.
- “Amilani”. Juan Kruz Igerabide.
- “Hobbit”, euskaratua.
- “Fairy Dark 2”, euskaratua.

MUSIKA

- “Etxea”. Kepa Junkera.
- “Itsas ulu zolia”. Benito Lertxundi.
- “Malko gorria”. Sugan.
- Itoizen antologia.
- “Batzuk”. Gu gira.

Se hará un descuento del 10% por cada libro o disco.

Bi hitzetan

- 1- Zein da irakurtzen ari zaren edo azkena irakurri duzun liburua?
- 2- Zer liburu gomendatuko zenioke lagun bati? Zergatik?
- 3- Baduzu Beasaingo abenduko liburu azokan zerbait erosteko asmorik?

Jon Rodriguez

- 1- Milena Agusen “Mal de piedras” (Siruela) eta Paul Austerren “El libro de las ilusiones” (Anagrama).
- 2- Fred Vargasen “La tercera virgen” (Siruela), nobela beltza, atzo lagun bati utzia.
- 3- Ez.

Arantxa Galarraga

- 1- “Brooklyn go erokeriak” ari naiz irakurtzen, Paul Austerrena.
- 2- “La sonrisa etrusca”. Askok gustatu zitzaidan, baina momentuan nola harrapatzen zaituen ere esan nahi du, zeren nahikoa tristea da.
- 3- Normalean niretzat ez dut erosten ezer. Alabarentzat, bai. Erosi behar badut neroneztzat, iruditzen zait muga jartzen ari naizela. Gustatzen zait norbaitek niri liburuak oparitzea eta orduan berdin izaten zait zein liburu den.

Ainhua Zamorano

- 1- Joxemari Iturrালের “Lehen amodioa Suedian”.
- 2- “El niño con el pijama de rayas” gomendatuko nuke.
- 3- Agian bai.

[Beasain] egunez egun

Beasaindarrek iaizko
San Silbestre krosa korritzen.
Argazkia: Fotoetxe.

Hirureun lagun inguruk hartuko dute parte San Silbestreko aurtengo krosean. Hori espero dute behintzat antolatzaileek. Beti-Bizi elkarteak Antonio Albizuren esanetan, “azken urteetan hor nonbait ibili da partaidetza eta aurten ere horixe espero dugu”. Ez dago berrikuntza nabarmenik. Hori bai, iaz neurketarako txipak erabiltzen hasi ziren. Zapatiletan eraman zituzten. Aurten,

35. San Silbestre krosa

Beasainen korrika ematen zaio agur urteari

ordea, dortsalean jarriko dituzte. Euskadi mailan, Beasaingo lasterketa da mailarik altuena erakusten duenetariko bat eta estatuari erreparatuz gero, bost lehenengoetan sartuko litzateke. Bederatzi kilometro jo eta su. Umoretsu. Urte zaharra atzean utzi eta berriari ongi-etorria emateko prest. Iaz Asier Eskisabelek herritarren artean hiru garren egin zuen. Hala ere, azken urteetan Afrika-rrak nagusitu dira. Iaz lehen hamar postuetatik lehen zazpiak Maroko eta Keniako korrikalariak bereganatu zituzten. “Haiei –dio Eskisabelek– aurre hartzea ezinezkoa izaten da. Gainera 1.200 euroko diru-saria ematen da, beste lasterketa askotan ez bezala, eta kanpotar asko etortzen da Beasainera korritzera. Gertatu izan da batek lehenengo Beasaingoa irabazi eta gero Gasteizkoa korritu egun berean eta hura ere irabaztea”. Hamid El Mouazai- zek 25:54 egin zuen. Emakumezkoetan ere keniar bat gailendu zen: Felehiwot Goshu 31:53ko denboran. Azkeneko marka Kiprono Menjok jarri zuen 2004an, 8,7 km. 25 minutu eta 11 segundutan korritu zituenean. Jose Miguel Urdangarinek gogora ekartzen duen moduan, aurretik denbora horberena Martin Fiz gazteiztarrarena zen. “Fizek 25:49ko denbora egin eta marka jarri zuen urte hartan korritu nuen. Nik neuk ondo gordeta ditut San Silbestreko lasterketan irabazitako lau kopa”, dio. Iaz semeari eta haren lagun bati laguntzearren atera zen. “Esperientzia polita izan zen. Gazteei erakutsi egin behar zaie, grina sortu... gainera, ateratzeak esan nahi du osasuntsu zaudela eta urte osoan zerbait egin duzula”. Urdangarinek erritmoa jarri eta fin-fin amaitu zituzten 9 kilometroak haren semeak eta Iñaki Aldanondok. Honek 14 urte ditu eta iaz atera zen estrainekez. Aurten berriro errepikatzeakotan da. “Askok gustatu zitzaidan, batik bat, giroa, herriko kaleetan jende ezaguna egoten delako zu animatzen eta zure izena oihukatzen. Hori bai, bakoitzak bere erritmoari eutsi behar dio”.



“Resulta imposible coger la delantera a los africanos. Hay quien tras correr y ganar la carrera de Beasain a la mañana, ha logrado imponerse en una segunda prueba a la tarde”.

Asier Eskisabel.

“Hemos catalogado la carrera de Beasain como más de élite, mientras que las otras son más populares”.

Manuel Hurtado.

“El año pasado salí por acompañar a mi hijo y a un amigo suyo y fue una experiencia muy bonita. Hay que aficionar a la juventud, crearles inquietud...”

Jose Miguel Urdangarin.

“Yo participé por primera vez el año pasado y me gustó el ambiente de las calles. La gente te conoce y te anima gritando tu nombre”.

Iñaki Aldanondo.



Argazkia: Fotoetxe.

Kontuak kontu, urteen poderioz lasterketa aldatzen joan da. Manuel Hurtado atleta federatua da eta urtero atera ohi da. Bere ustez, “kanpotik korrikalari profesional asko etortzen da eta horrek Gipuzkoako maila jaitsi egin du. Lehen, herritarrez gain, 10 atleta euskaldunek hartzen bagenuen parte, orain bizpahiru aterako dira. Beasaingo lasterketa elitekotzat hartu dugu, inguruko beste batzuk herrikoiagoak diren bitartean”. Halere, gehientsuenak ez dira marka egitera joaten. “Lehenengo -dio Asier Eskisabelek- 30etan sartzen direnak, agian bai, baina gehiengoak ez”. Nahi duena moztortuta ere atera daiteke. “Atze samarrean ibiltzen diren batzuk baino ez dira moztortzen”. Urteari agur esateko modu polita da. “Gero siesta egin eta gauean, parrandara”, dio Asierrek. Manuelek ere ez du gaua alferrik galtzen. “Nondik edo handik indarrak ateratzen dira. Kopatxo bat hartu ostean gainera gogo gehiagorekin”.

Informazio gehiago: Beti-Bizi elkarte
Tel. 943 02 85 08 - 943 88 98 40

Gabon borobilak etxeko txikientzat

[Beasain] egunez egun

Gabonak hasi dira ate-joka. Baina oraindik asko dago egiteko. Batzuk oraindik ez zioten gutuna idatziko Olentzero edo Errege Magoei; beste batzuk, Udalak antolatzen duen Olentzeroren kartel-lehiaketarako lana amaitzen arituko dira; Gurasoei menua pentsatzen ere lagundu beharko zaie, gabon-kantak entseatu... eta egunero ikasten jarraitu oporretan gozatu ahal izateko. Izan ere, eskaintza zabala da. Horra zenbait proposamen:

Abenduak 10 Bertsotxongiloak “Hitzen lapurra”

Tinbili-Tanbala taldeak “Hitzen lapurra” bertsotxongilo ikuskitzuna aurkeztuko du. Libe, Ander eta Amaia hitzekin jolasean ari dira bertsok osatuz. Bukatzean, beltzez estalitako izaki misterio bat agertzen da. Bera ote hitzen lapurra? 17:30ean, Udal Batzar Aretoan.

13 de diciembre Teatro “Alegiazko liburua”

La compañía catalana La Baldufa presenta “Alegiazko liburua”, un viaje para todos los públicos que quiere ser una llamada a la aventura y a la utopía. El protagonista tiene una existencia monótona y aburrida hasta que llega a sus manos un libro abriéndole las puertas del mundo de la imaginación, de la aventura y del viaje.

A las 17:00h, en Usurbe Antzokia.



Del 26 al 30 de diciembre Gabonetako Haur Parkea

Abenduaren 26tik 30era, Antzizar kiroldegian Gabonetako Haur Parkea jarriko da. Goizez 11:00etatik 13:00era eta arratsalde, 16:00etatik 19:30era. Hilaren 26an, globoekin figura ezberdinak egin ahal izango dituzte haurrek eta 28an, txotxongilo ikuskizun bat eskainiko du Rosa María Martinezek “Rosa kontaidazu ipuin bat” izenburupean. Protagonistari, Koldori, gehien gustatzen zaion ipuina kontatuko du: “Hiru lumak”. Txoriek utzitako hiru luma horiekin soilik babestuta, baso ilun bat zeharkatu beharko du. Mugimendu, dantza, soinu, e.a. uztartzen ditu emanaldiak.

Halaber, 30erako, txokolatada antolatu da. Ekintza horiek 18:00etan izango dira Antzizar kiroldegian.

Olentzeroren kartel lehiaketaren sari banaketa abenduaren 17an izango da, 12:00etan Udaletxean.

Entrega de premios del concurso del cartel de Olentzero de la pasada edición.



Olentzeroren etorrera 24an, eguerdiko 12:00etan, Loinazko San Martin plazan



Olentzero: “Adinean aurrera noa eta ezin dut hainbesteko pisua ibili zakuan”

Olentzero vive lejos de Beasain, pero gracias a las nuevas tecnologías hemos podido contactar con él a través del correo electrónico. Él también se ha apuntado a la era moderna.

Kaixo Olentzero, lana pilatzen ariko zaizu ala?

Bai ba. Gutunak eta gutunak ari zaizkit iristen egunero eta ez dakit aurten nola ibiliko naizen etxe guztietara iristeko. Haurrek gero eta opari sorta luzeagoa egiten dute eta egunak 24 ordu ditu. Gainera, adinean aurrera noa eta ezin dut hainbesteko pisua ibili zakuan. Halere, entrenatzen aritu naiz eta nahiko sasotsu nago.

Gaizki portatu direnentzat ikatza etxean utz dezakezu.

Baina nola? Ni neure buruarekin fidela naiz eta arau bat dut. Gaizki portatzen direnei, ikatza.

Eta ondo, ondo, ondo, portatu direnentzat, zer?

Ahaleginduko naiz haien ametsak betetzen. Baina, esan bezala, ditudan opariak ondo banatu nahi ditut. Ez dadila haur bat bera geratu oparirik gabe.

Gau horretan, zer nahi duzu etxeetan zuretzat uztea, esnea, ardoa, gailetak...?

Txokolate apur bat, agian indarrak hartzeko. Edo txokolatzeko turroia. Baina gehien eskertuko dudana da haurrak ematen didan harekin gozatzea. Eta norbaiti buruan zuen opari hura ez bazaio tokatzen, ez haserretzeko eskatuko nioke. Gainera, nik urtero egiten dut bisita.

Eta Olentzero, zuk zer eskatuko zenuke?

Irudimena indartzea. Irudimenak jostailurik handienak baino gehiago balio du. Nire txikitako jolasak zeintzuk ziren esango banizu...

Jostunek jarri dute hitzordua



María Antonia Samaniego, Begoña Aliende, Maite Txintxurreta, Pilar Mujika, Isabel Elorza, Juani Ibarbia, Natividad de la Calle eta Loli Igarzabal.

Dicen que son la última generación de modistas. En Beasain ya ni siquiera existe una escuela. La última cerró sus puertas hace tres años. Justo cuando a Pilar Mujika, tras 27 años, le llegó la hora de la jubilación. Durante todos aquellos años pasaron por su local más de 700 mujeres. La escuela también era un confesionario para ellas. La máquina de coser fue testigo de sonrisas y lágrimas, de euforias y desahogos. Dentro de aquellas cuatro paredes había grandes dosis de amistad. Si la vida presentaba su cara más cruel a alguna de ellas, el resto intentaba ayudarla. Ahora echan de menos aquellos momentos. Pero siguen reuniéndose de vez en cuando. Tienen citas fijas. Una de ellas con motivo de la celebración de su patrón: Santa Lucía. Tienen ganas de echarse una buena juerga.

Josten ganoraz dakiten emakumeak gero eta gutxiago dira. Gazteen artean, berriz, gehienara jota, botoiren bat josteko hartzen dute orratza. Sasoi batean, ordea, oso bestelakoak ziren kontuak. Andre askok etxean egiten zuten lan josten, sos batzuen truke. Gaur egun josten ikasteko aukerarik ere ez dago. Pilar Mujikak itxi zuen Beasaingo azken jostun eskola. 27 urte eman zituen han, jubilatze garaia iritsi zitzaion arte. Egutero lau talde izaten zituen, bi orduko txandetan. Orain, ikasle ibili zirenek malenkonia kutsu batekin gogoratzen dituzte urte haiek. "Ni ez naiz gogoratzen noiz utzi genuen ere, niri urteak binaka

pasatzen zaizkit", dio Begoña Aliendek. Esker ona baino ez dute Pilarrentzat. "Liburu bat idatz dezake Pilarrek bizi izan duen guztiarekin", diote. "Izan ere, -dio Natividad de la Callek- konfesategi bat izan zen eskola eta Pilar, askoren aingeru goardakoa". Pilarren ustez, elkarbizitza horretara denboraren poderioz iristen da. "Nik -dio- bi familia izan ditut. Neurea, propioa, eta eskolakoa. Saiatu nintzen, eta uste dut lortu nuela, josten erakustez gain, entzuten eta laguntzen, pertsona bakoitza mundu bat da-eta". Kontuak kontu, faltan botatzen dituzte han igarotako orduak. Etxeko-andreak, gogoak... denetarikojendea ibili da josten ikasten Beasainen. Askok josten jarraitzen dute euren etxeetan kanporako lanak egiten. Maria

- "Yo he tenido dos familias. La mía y la de la escuela. Intenté, y creo que lo conseguí, además de enseñar a coser, a escuchar y a ayudar en aquello que podía porque cada persona es un mundo".

Pilar Mujika.

- "La cena de Santa Lucía es sagrada para nosotras. Nuestros maridos ya lo saben".

Natividad de la Calle.

- "A algunas no nos dio tiempo a sacar el título. Pilar se nos jubiló antes".

Begoña Aliende.


- "Tengo tres hijas y un hijo, y el único que sabe coser a máquina es mi hijo".

Juani Ibarbia.

Santa Luzietarako

El 13 de diciembre es el día de Santa Lucía, la patrona de los ciegos y de las modistas, porque se quemaban la vista al coser bajo la luz de las velas.

Las modistas siguen celebrando su día. Si no pueden el mismo día 13, en otra fecha cercana. La celebración consiste en ir a cenar en coadrillas y disfrutar de la noche, que suele ser larga.



Antonia Samaniegok, esaterako. Eskolan urte gehien eman zituenetarikoa da. "Titulua atera nuen eta horretan jarraitzen dut". "Guk titulua ateratzerako, berriz, Pilar jubilatutik gertatu zuten, je, je, je" gaineratu du Begoñak txantxetan.

Egindako kalkuluen arabera, 700 edo 800 emakume pasako ziren eskolatik. Gizonezkoak, berriz, bi baino ez. "Orain, -Juani Ibarbiak hartu du hitza- nik hiru alaba eta semea ditut eta makinaz josten dakien bakarra semea da. Kordinak egin ditut, sofarako forrua... alabek, berriz, ezer ez".

San Martinetako prozesiorako, festetako erraldoientzat, Errege Magoentzat, antzerkirako, eta beste hamaika halakotarako josi dute. Adituak dira. Eta moda ere jarraitzen omen zuten. Aldizkarietan arropa aukeratu eta patroia hartara egokitzen zuten. "Desfileak ere egiten genituen", gaineratu du Juanik. Pilarrek Frantzian ikasi zuen josten baina han manikiak egiten zuten lan eta hona etorritakoan patroiekin, paper gainean, lan egiten ikasi behar izan zuen.

Gaur egun, presakako bizimoduak dendetara eramaten gaitu. Di-da batean jantzita. "Dendarientzat okerrena josten dakien bat sartzea da". "Hainbestekoa da eskaintza eta gero, konponketak egiteko inor ez!". Bezeroren bat zain ez dagoenean presa sartzen, erlaxatzeko modu bat izan daitekeela jostea diote. Baina badituzte erlaxatzeko beste bide batzuk. Santa Luzitako aforia, adibidez. Azken urteetan, jatetxe berera joaten dira eta beti prestatzen diete ustekabeko plateren bat. "Lehen Zaldibira edo, joan izan ginen. Baina alkoholemia probak egiten hasi zirenetik bertatik bertara. Urte batean, Mandubira igo ginen. A zer elurtea bota zuen! Errepidea garbitu zuten arte ezin jaitsi!".

Parranda polita bota ohi dute. Maria Antoniaren esanetan, beti berdinak geratzen dira azken arte. "Formalak lehenago etxeratzen dira". "Formalak edo gatzgabeak", erantzun dio Maite Txintxurretak. "Edonola ere, egun hori sakratua da guretzat. Senarrek badakite", dio Natividadek. Maitek, berriz, "falta zena! Oso senar liberalak ditugu. Olean ez badute nahi, txarrean. Baina tira, egia esan behar badugu, sartzen gara pub batean eta handik mugitu ere ez gara egiten. Hiru botila ur edan eta etxeratu arte!". Bejon deizuela!